



Idatzi honen bidez jakinarazten dizut Udalbatzarrak, 2006ko uztailearen 26an egindako osoko bilkuran (akta onartzeko dago), honakoa erabaki zuela:

## "2006. URTEKO OHORE ETA AIPAMENAK EMATEA

Ondoren, bozeramaileek, aurtengo uztailearen 6an egindako bileran, 2006an Ohoreak eta Aipamenak emateko egin zuten proposamena ikusi da.

### b) Zerbitzu Berezien Domina: Bake Amets (Gesto por la Paz) taldeari

Zerbitzu Berezien domina emateko arrazoiak proposamenean adierazitakoak dira, eta honela dio:

#### *Bake Amets (Gesto por la Paz)*

"Gesto por la Paz koordinadora Bilbon eta inguruko herrietan sortu zen 1986. urtean. Hasiera batean, unibertsitateko ikasleei eta kristau talde batzuei lotuta sortu zen, baina berehala galdu zuen giza talde horiekin lotzen zuen identitate-zeinu oro, eta mugimendu erabat plural bihurtu zen. Gaur egun jende ugari eta ezberdina biltzen du, edozein sentsibilitate politikokoa eta edozein ezaugarri soziologikokoa.

Gesto por la Paz herritarren adierazpide izateko sortu zen, indarkeriaren kontra agertzeko adierazpide, bai eta indarkeria jasaten dutenei elkartasuna erakusteko ere.

1989ko otsailean, Gesto por la Paz taldearen Zarauzko taldea sortu zen: "BAKE AMETS". Sortuz geroztik, eta bere ideiek agintzen zutenari jarrai, beso zabalik hartu zituen, ideologia pertsonalak alde batera utzita, gure gizarteko indarkeria politikoaz kezkatuta egon eta gertatzen den guztietan isiltasunean horren kontra agertzeko konpromisoa duten zarauztarrak.

1990eko martxoaren 17an argitaratutako prentsa-ohar batean, "Bake Amets" taldeak bere esker ona adierazi zien Angel Mota donostiarra erail zuen atentatua kondenatzera bildu ziren 250 pertsoneri. Kontzentrazio hartan beren nahia azaldu zuten: huraxe izatea, hain zuzen ere, Euskal Herriko gehientsuenek arbuizatzen zituzten gertakari horrelakoengatik biltzen ziren lehenengo eta azkeneko eguna.

Hala, taldea sortu zenetik, ehunka aldiz bildu da urte hauetan, Torre Luzearen aurrean hasieran, eta Lege Zaharraren Enparantzan gerora, 1997ko ekainaren 2tik.

"Bake Amets" taldeak, kontzentrazio horietaz guztietaz aparte, bestelako ekintzak ere egin izan ditu; hala nola, EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO MARTXA, Bilbon ekainaren 28an hasi eta, gure herrialde ia guztia gurutzatuta, Gernikan bukatu zena, uztailearen 18an. Zarautz etapa garrantzitsuetako bat izan zen martxa hartan.

Julio Iglesias Zamora, José Maria Aldaia, José Antonio Ortega Lara eta Cosme Delclaux bahituta egon zirenean, betiko kontzentrazioez gain, bestelako ekintza eta manifestazioak ere antolatu zituen "Bake Amets" taldeak Zarautzen, ETA taldearen bahiketok arbuiatzeko eta biktimei solidaritatea agertzeko.

Hauek izan dira eta dira Gesto por la Paz taldearen jardun-printzipioak:

1. Giza eskubideak errespetatzea, batez ere, bizi-eskubidea, gainerako guztien oinarria baita.
2. Gure jarduna eta mezua ustezko arrazoi politikoengatik Euskal Herrian sortu den indarkeriari lotzea.
3. Salatzea indarkeria ez dela zilegi, ez etikaz ez politikaz.
4. Marko eta printzipio demokratikoekiko errespetua sustatzea.
5. Gizartea adiskidetzeko premia.

Gesto por la Paz taldeak jasotako errekonozimenduak:

- 1988. El Correo saria, Giza Balioak sailean.
- 1989. Valores Humanos de Justicia y Paz saria (Bilbo)  
Eusko Jaurlaritzak aho batez Gesto por la Paz izendatu zuen Bakearen Nobel Sarirako
- 1990. Sabino Arana Fundazioak emandako saria.  
Enrique Casas Saria
- 1991. Cambio 16 saria, Giza Balioak sailean (Madril)  
Saguzar Saria (Bilbo)
- 1992. Manuel Broseta Fundazioaren Saria, elkarbizitzari (Valencia)  
Galeon Saria, Giza Eskubideen defentsari (Getxo)
- 1993. Príncipe de Asturias Saria, gogaidetasunari  
Correo Saria, lazo urdinari  
Premis d'Honor Vila de Pedreguer.  
Fundación Cordoba 2000 taldearen Nuestra Tierra saria  
Ikusi enpresako langileen esker oneko plaka
- 1994. Carmen Tagle Saria
- 1995. Asociación de las Naciones Unidas España elkartearen Saria, bakeari  
Fuenlabradako Udalaren Konstituzio Saria  
Asociación Soledad Renedo elkartearen accesita, gogaidetasunari (Burgos)
- 1996. Club Internacional de Prensa Saria, gardentasunari (Madril)  
Agrupación de Abogados Jóvenes de Zaragoza taldearen ohorezko talde-kide izendapena  
Asociaciones ciudadanas de Torrente y Cormaza elkartearen Ciudadá Saria (Valencia)  
Etorbide bati Gesto por la Paz izena jartzea (Algeciras)  
Radio Nervión Saria (Bilbo)
- 1997. Club Rotary Saria (Bartzelona)  
DAG HAMMARSKJÓLD Saria, Korrespontsal Diplomatikoen Nazioarteko Erakundea eta Bakearen aldeko Akademia Diplomatikoa  
Hospitalet Hiriaren Saria, elkarlanari  
Tamaron-go Kultur Elkartearen Saria, Giza Balioei (Burgos)  
Fuentedueña del Tajo-ko Balleneros Saria  
Cabra-ko PROMI elkartearen Saria, askatasunari (Kordoba)



## ZARAUZKO UDALA

- Colegio La Salle Montemolín eskolaren Bake Saria (Zaragoza)  
El Yunque Saria, Sestaoko PSE
1998. Westfalia Bakearen Saria (Vaclav Havel-ekin partekatua) (Alemania)  
La Confederación de estudiantes Saria, askatasunaren defentsari  
Manos Blancas Saria
1999. Tierno Galván Saria, solidaritateari eta giza balioei (Santa Maria de Tormes,  
Salamanca)
2000. Abogados jóvenes de España Saria, Giza Eskubideen defentsari (Granada)
2001. Jesús Maria Pedrosa Saria, askatasunen eta balio demokratikoen defentsari  
(Durango)  
Fundación Social Universal Saria (Montilla, Cordoba), Giza Balioen defentsari."

Hori guztia dela bide, adierazitako merezimenduen esker onez,  
Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

BAKE AMETS (GESTO POR LA PAZ) taldeari ZERBITZU BEREZIEN DOMINA  
entatea, Zarautzko Udaleko Ohore eta Aipamenen Araudian ezarritako  
ondorioekin."

Zarautzen, 2006ko uztailaren 27an

Idazkaria



GESTO POR LA PAZ  
ISABEL URKJO AND.

Apdo. 10.152

48080 BILBO